

**BILBO.** Etxebizitza lokan daukien guztientzako «lehiatila bakarra» eskatu deusie Udalari

# Auzokoek parte hartu gura dabe Bilbo Zaharraren bizibarritze prozesuan

Haserre dagoz, euren gogoia adierazi arren udal agintariek ez deusielako «kasurik egiten»

Iñigo Bilbao |

Bilbo Zaharreko herritar asko arduratuta dagoz, auzoa bizibarritze plangintzearen ondorioz euren etxeak bota egingo dituelako. Udalak 1994. urteko urrian egin zan udalbatzarrean plangintzea onartu ebanetik, auzoan gero eta handiagoa da horrek eragin dauen ezinegona.

Auzokoek dinoenez, eurak prest dagoz plangintzearen ondorio guztiak onartzeko, aldatetak euren bizi baldintzak hobetzeko badira. Baina, era berean, arduratuta dagoz botako dituen etxeetan bizi diranak non sartuko diran ez dabelako garbi ikusten.

Salatu dabenez, Udalak bizkarra emon eta ez deutse prozesu horretan parte hartzen itxi. Horrexegaitik, euren etxea lokan daukien auzokoak alkarte baten batu dira udal agintariei eskaerak alkarregaz egiteko. Udalari eurentzat guztientzat «lehiatila bakarra» ipinteko eskatzen deusie, lehenengo eta behin. Prozedura danentzat bardina izatea gura dabe.

Auzoko egituratze barriak zelako aldatetak ekarriko dituen jakin gura dabe, ganera; baita bizibarritze planaren ostean Bilbo Zaharra zelan geratuko dan be. Euren gogoia da prozesu horretan parte hartzea, agintariek batera. Alde horretatik, Bilbo Zaharra Miribillan egiten da-

gozan auzo barriagaz lotzeko eskatzen dabe, eta alderdi batek bestera igaroteko egon leitezkean mugak kendu.

Botako dituen etxeetan bizi diranei jagokenez, auzokoek argi daukie auzoko bizibarritze prozesuaren ondorioz, inor ezin izango dala geratu orain dagoen baino egoera okerragoan, ez baldintza ekonomikoiei jagoke-

nez, ezta etheen jabegoari edo alokairuari jagokenez be. Orain dituen eskubideak babesteko eskatzen deusie Udalari.

Bilbo Zaharreko auzokoek eskaera bat nabarmentzen dabea-maitzeko: «Inor ez da auzotik joatera behartuta egongo, etxe batetik bestera joateko agintariek ipinitako baldintzek horretara bultzatzen dituelako».



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS  
Bilbo Zaharreko herritarrak arduratuta dagoz.

## PROTESTEA

### Herritarrak udalbatzareraino sartu ziran

Udaletxean izan ziran joan dan astean Bilbo Zaharra bizibarritze planaren ondorioz botako dituen etxeetan bizi diran herritarrak. Agintariak udalbatzarrean zenbait gai eztabaidatzen egozala, halako baten zutitu eta agiri bat irakurtzen hasi zan euretako bat. Iñaki Azkuna alkatea haserretu egin bazan be, ez zan auzokoak indarrez kaleratzeko agindua emoten ausartu, eta bi edo hiru aldiz bere berbaketea ixildu eragiten ahalegindu zan arren, azkenean agiri osoa irakurtzen itxi eutsen.

Udaltzainek batzar aretoetik atara zituenean, alkateak argi itxi eban ez dirala horrek auzokoek euren eskakizunak jakin eragiteko moduak, horretarako dagozala Barruti Kontseiluak, eta auzokoek badituela mozinoak aurkezteko moduak. Oposizionokak barrezka hartu zituan berbok, alkateak berak batzar horretako gai zerrendatik kendu zitalako auzo taldeek aurkeztutako mozinoak.

## BARAKALDO

### Kultura Saileko zinegotziaren dimisinoa eskatu dabe zinegotzi abertzaleek

Erredakzioa |

Barakaldoko Ezker Abertzaleko zinegotziek Alfonso Garcia Kultura Saileko arduradunaren dimisinoa eskatu dabe, sarearen bidez Udaleko beharginei mezu «sexista» eta «atzerakoiak» zabaldu deusielako. Garciak neskato baten ganeko txiste iraingarria zabaldu eban, joan dan barikuan.

Zinegotzi abertzaleen arabera, txistean bere burua *españolizatza* daukan neskato batek Euskal Herritarrok taldekoa den irakasleagaz daukan alkarregaz daukan alkarregaz aitutzen da. Pasadizoaren arabera, neskatoak aitortzen dau bera be EHko kide izango zala baldin eta ama «prostituta» eta «drogazalea» balitz; aita, «alperra», «mozkorra» eta «droga trafikatzalea», eta neba «lapurra» eta «homosexuala» balitz. Koldo Castaños ezker abertzaleko taldearen bozeroaleak salatu daueenez, alkatea bera jarduera horren erantzule politikoa izango da, al bait arinen ez baditu Kultura zinegotziaren kontrako neurri zorrotzak hartzen.

## BILBO

### Udal Etxebizitzak alkarteak ez deutse soldatea igon beharginei azken hile bietan

Erredakzioa |

Udal Etxebizitzak alkarte beharginen ordezkariak idatzia igorri deusie enpresako arduradunei, ez urrian ez zemendian ez deusielako pagau soldateari jagokozan igoerak. Izan be, idatzian alkarte arduradunei gogoratu eutsienez, udalbatzarrak soldatak %2 igotea ebatsi eban, urriko batzarrean.

Alkartean sinatuta daukienaren arabera, lan hitzarmen barria berbatu bitartean, Udalak onartutako igoerak eragina eukiko dau euren soldatan. Beraz, «huts» hori al bait arinen zuzentzeko eskatu dabe beharginen.

**EKONOMIA.** Jasangarrtasun sozioekonomikoaren ganeko azterketea aurkeztu dau Solabarrieta diputauak

## Bizkaiko behargin gehienek, % 72k, lau sektoretan egiten dabe behar

Erredakzioa |

Jasangarrtasun edo oreka sozioekonomikoaren ganeko azterketea aurkeztu eban atzo Maria Esther Solabarrietak, Bizkaiko Ingurumen diputauak. Lurralde jasangarria edo orekatsua lurralde garbia baino gehiago dala nabarmendu eban Solabarrieta diputauak. Eta hori dala eta, ingurumenetik aparte, egoera ekonomiko eta soziala be aintzat hartu behar dirala azpimarratu eban. Horren haritik azaldu eban atzo

azterketa sozioekonomikoa. Eta horren arabera, ekintza produktiboko 13 sektoretatik lautan egiten dabe behar Bizkaiko behargin gehienek: % 72k.

2000. urteko datuen arabera merkataritza sektorean % 26,48k egiten dabe behar; finantza erakundeetan, % 17,99k; industria mekanikoa, % 15,99k; eta zerbitzu publikoetan, % 11,90k.

Azterketea eskualdeka egin ezker, Bilbo Handian sortzen da beharrik gehien (% 64,76),

eta gero, nahiz eta alde handira agertu, Durangaldean (% 7,56).

Dana dala, azterketearen arabera, behargin gehienek bizi diran eskualdean bertan egiten dabe behar: % 78,82k. Halan dabe, Bilbo Handian bizi diran 33.000 bizilagun beste eskualde batera joaten dira lanean, eta beste eskualde batzuetatik 24.297 joaten dira Bilbora.

### Biztanleria, gero eta zaharragoa

Datu soziologikoei begira, jente gehiago dago Bizkaian 1998tik 2000ra bitartean, baina ehuneko txikia da; izan be, % 0,01ean baino ez da handitu. Dana dala, eskualdetik eskualdera desbardina da datua. Halan eta guzti, ehunekoa edo diferentzia txikia da, negatiboa zein positiboa.

Urte biotan biztanle gehien irabazi dituan eskualdea Arratia-Nerbioi da (% 0,42), eta gehien galdu dituan eskualdea, ostera, Enkarterri (% 0,17).

Dana dala, Bizkaiko jaiotze tasea aintzat hartuta, eta geroari begira, gaur egungo behargin guztien lekukoa hartuko ete daben ez dago hain argi; izan be, biztanleria aktiboaren txanda aldatetea jaitsi egin zan 1998tik 2000ra, hau da, 1,52tik 1,44ra.

Azterketearen arabera, gero eta zaharragoa da Bizkaiko biztanleria. Bizkaiko 111 udalerrietatik 9tan baino ez da ailegetan % 14tik gora gazteriaren kopurua. Herri gehienetan (93), ostera, % 8 eta 14 artean dago gazteriaren ehunekoa.